

HOGEITA BEDERATZIGARREN BILERAKO AKTA

BIZKAIKO INDARKERIA MATXISTAREN BEHATOKIA

Eguna eta ordua: 2024ko azaroaren 12, 11:00 - 13:00

Lekua: Poza Lizentziatuaren kalea, 7

- Gai-zerrenda:**
1. Ongietorria eta dokumentazioa ematea.
 2. Gai-zerrenda irakurtzea.
 3. Aurreko bilerako akta onartzea.
 4. Ordezkarri berriak aurkeztea.
 5. 2023ko arreta zifra aurreratzea.
 6. Galde-eskeak.
 7. Agurra eta hurrengo jarduketak.

Bertaratu direnak:

Epaimahaiburua: Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru-diputatu: M.^a Teresa Laespada andrea

Batzordeko buruordea: Berdintasuna Sustatzeko zuzendari nagusia: Trinidad Vicente andrea

Idazkaria: Berdintasuneko goi-mailako teknikaria: Alixe Rodríguez andrea

Kideak:

- BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila (Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia): Oscar Seco jauna

- BFAko Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila: Esther Glez. de Audikana andrea

- EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea: Miren Elgarresta andrea

- EJko Segurtasun Saila: Ugaitz Zabala jauna

- Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila: M.^a Antonia Olabarrieta andrea

EJko Hezkuntza Saila: Mikel Juaristi jauna

EJko Osasun Saila: Miren Lorea Bilbao andrea

- Udalerriak eta mankomunitateak - EUDEL:

- o Gordexolako Udala: Ángela Eguía andrea
- o Mungiako Udala: Alaitz Erkoreka andrea
- o Galdakaoko Udala: Amets Iturbe andrea



- Elkarateak eta erakundeak:

o *Genero-indarkeriaren eremuak:*

-AUZOLAN Laguntza Psikosozialeko Moduluak: Marta Dolado andrea

o *Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluaren izenean:*

-ETENGABE JABEKUNTZA elkartea: Esther González andrea

**Ez
bertaratzea
desenkusatu
dute**

- BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila (Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia): Cristina Sarduy andrea

- BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila (Gizarte Kohesioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia): Ignacio Rodríguez jauna

- Elkarateak eta erakundeak:

-ARGITAN Emakumeentzako Aholku Etxea: Mireia Saiz andrea

Landutako gaiak:

1. Bertaratutakoei ongietorria egitea; Teresa Laespada arduratu da.
2. Gai zerrenda irakurtzea; Trinidad Vicente andrea arduratu da.
3. Aurreko bilerako akta onartzea; Trinidad Vicente andrea arduratu da.
4. Ordezkarri berriak aurkeztea eta kargua utzi dutenei eskerrak ematea; Trinidad Vicente andrea arduratu da.
5. 2023ko arretari buruzko kopuruak aurreratzea; Trinidad Vicente andrea arduratu da.
6. Behatokiaren webgunea aurkeztea; Alixe Rodríguez andrea arduratu da.
7. Bilerari 12:30ean amaiera ematea; M.^a Teresa Laespada arduratu da.

BILERAREN GARAPENKO GAI ETA ESKU-HARTZE NAGUSIAK

Marko gisa:

M.^a Teresa Laespada andreak hasi du saioa, eta ongietorria eman die parte-hartzaile guztiei.

Trinidad Vicente andrea BFAko Berdintasuna Sustatzeko Zuzendari berria aurkeztu du. Martxoan hartu zuen kargua, Patricia Campelo andreak hori utzi eta gero.

Ondoren, Trinidad Vicente andreak aurreko bilkuraren akta onartzeko aurkeztu du, eta baiespenez onetsi da.

Ordezkarri berriei buruz:

Aurkezpen-txandaren ondoren, Trinidad Vicente andreak ongietorria eman die ordezkari berriei, eta kargua utzi dutenen parte-hartzea eskertu du: Osasun Saileko Nerea Urien; Segurtasun Saileko Ana Iturriaga; eta, EUDELen ordezkartzan, Fruizko Udaleko Ane Legarretaetxebarria eta Barakaldoko Udaleko María Solar.

2023ko arreta zifren aurrerapenaren aurkezpenari buruz



Trinidad Vicente andreak grafikoekin aurkeztu du Bizkaiko arreta-zerbitzu publikoek 2023an emandako datuen laburpena, baita 2004. urtetik izandako bilakaera ere. Datuak 2023ko zifren aurrerapen txostenetik datoz, txosten osoa egin aurretik egindakoa.

Azalpenean, Bizkaian 2023an indarkeria matxistari emandako arreta instituzionalari buruzko txosten eguneratua aurkeztu du, eta nabarmendu du datuek berretsi egiten dutela eskariaren goranzko joera jarraitua, babes-sistema guztiei eragiten diena (soziala, poliziala, judiziala eta sanitarioa), eta, txostengilearen hitzetan, «gailu espezializatuen gaineko gero eta presio handiagoa islatzen du, bereziki arreta psikologikoari eta bizitoki seguruari lotutakoei dagokienez».

GIZARTE EREMUA (BFA eta Eusko Jaurlaritza)

Adierazi duenez, **berehalako harrerak** 2023an lortu du maximo historikoa, 291 pertsona artatu baitira; horietatik 172 emakumeak dira eta 119 adingabeak ardurapean. Lagundutako pertsonen % 88 bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren ondorio da, eta azpimarratu du hamar emakumetik hiru ezin direla itzuli beren ingurunera, eta, beraz, arreta luzatu egin behar dela beste foru-baliabide batzuen barruan.

Egonaldi ertaineko harreran 40 pertsona artatu dira (19 emakume eta 21 adingabe), eta batez besteko egonaldia 9 hilabete ingurukoa izan da. Horrek kasuen kronikotasuna eta konplexutasuna areagotu direla berresten du. Hizlariak nabarmendu du emakume gehienek 40 urte baino gutxiago dituztela eta Estatutik kanpo jaio direla (% 89), eta, beraz, kulturarteko indargarriak sartu behar direla esku-hartzean.

AHOLKULARITZA JURIDIKOKO ZERBITZUEK 312 emakume artatu dituzte aurrez aurre, eta horietatik ia erdia indarkeriaren biktimak dira. Horrek berretsi egiten du prozesu judizial eta administratiboetan etengabeko laguntza behar dutela.

ARRETA PSIKOLOGIKOKO ZERBITZUAK (ESNATU) 1.779 erabiltzaile izan ditu (biktima diren 1.605 emakume eta neska). Hori serie historiko osoko daturik altuena da, eta 2005etik % 170eko hazkundea eman dela esan nahi du. Baliabidearen deszentralizazio progresiboak eta ordutegia zabaltzeak azaltzen dute, neurri batean, igoera hori, baina hizlariak ohartarazi du kasu berrien bolumena egiturazkoa dela, egunero bi emakumek hasten baitute tratamendua bikotekideak eragindako indarkeriagatik.

Biktima diren adingabeei dagokienez, 161 kasu artatu dira Esnatun, zerbitzua abian jarri zenetik kopururik handiena.

BFAko **ARRETA KOMUNITARIOKO zerbitzuek** (ZERIZAN, SUA eta BEREGAIN programak) gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea, esku-hartze psikosoziala eta soziojuridikoa, gizarte-laguntza eta abar garatzen dituzte, baita bizitokirako babesa behar duten arreten ehuneko handiak ere.

GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN ADINGABEETAN ESPEZIALIZATUTAKO FAMILIAN ESKU HARTZEKO PROGRAMAK 70 adingaberi eta guztira 118 pertsonari ematen die arreta, horiek ere balio maximoak izanik, eta horrek agerian uzten du, hizlariaren arabera, "indarkeria matxistak mantendutako haurren kaltea ikusarazteko eta identifikatzeko prozesua".



EUSKO JAURLARITZAREN 24 ORDUKO TELEFONOAK 2023an 1.717 dei jaso zituen Bizkaitik, % 70 biktima zuzenek egindakoak, eta gainerakoak haien ingurukoek egindakoak. Hori 2022an baino % 11,6 gehiago da.

ETXEBIZITZAREN arloan, genero-indarkeriaren biktimen 903 espediente aktiboren berri eman da Etxebiden, aurreko urteko erreferentzia-data berean baino % 30 gehiago. 2023an 59 esleipendun izan dira (+% 195). Adierazle horrek egoitza-irtenbide egonkorren gero eta eskari handiagoa erakusten duela nabarmendu du.

1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluko LAGUNTZA EKONOMIKOEK 344 eskaera izan dituzte, aurreko urtean baino 91 gehiago. 2009tik, guztizko kopurua 14 aldiz handiagoa izan da, eta hori informazio gehiago izatearen eta indarkeriatik ateratzeari lotutako prekarietate ekonomikoaren ondorio da.

POLIZIA-EREMUA

Jakinarazi da 2023an 3.505 biktimizazio erregistratu direla, daturik altuena erregistro homogeneoak daudenetik. Hau da, egunean ia hamar aldiz gertatzen da, eta 2003an bost aldiz.

Bikotekideak eta bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren barruan, 2.567 biktimizazio egon dira, % 9,1eko igoera izan dena. Hizlariak azpimarratu duenez, "kasuen erdia baino gehiago bikotekide ohiarekin gertatzen da, eta horrek erakusten du haustura-unearen arriskua".

Familia barruko indarkeriari dagokionez, 613 kasu izan dira, eta ama izan da biktima kasuen % 45ean. Atal honetan hildako bat erregistratu da.

Sexu-indarkeriak gora egiten jarraitu du: 325 biktimizazio, bereziki kezagarria den ezaugarri batekin: biktimen % 56 20 urtetik beherakoa da, eta hamarretik lau ez dira adin-nagusitasunera iristen.

2023an, 1.000 biztanletik gorako udalerrri guztietan erregistratu da biktimizazioen bat.

EREMU JUDIZIALA

3.627 salaketa erregistratu dira; % 5,1eko igoera izan dena, eta horrek esan nahi du egunero hamar salaketa jarri direla.

776 **BABES-AGINDU** hasi dira, eta horietatik 615 hartu dira.

BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUAK 1.981 pertsona artatzen ditu (gehienak emakumeak), eta **Familia Elkarguneek**, batez ere Bilbokoak, jarraipena egiten diete amak bere aldeko babes-agindua duen familietako 123 haurri. Bisita gehienak gainbegiratuak dira.

OSASUN EREMUA

Osasun-zerbitzuek 583 indarkeria-kasu detektatu dituzte **LEHEN MAILAKO ARRETAN** (+% 30,7) eta **640 OSPITALE-ARRETAN** (+% 23,1). Ospitale-kasuen ia erdia Bilbo-Basurtu ESlan izan da.



Hizlariak nabarmendu du datu horiek osasun-sistemara iristen den indarkeriaren "zorua" baino ez direla, kasuak ez detektatzea oraindik ere arazo dokumentatua baita.

ERASOTZAILEEI BURUZKO DATUAK eman ditu:

Identifikatutako 2.236 erasotzaile erregistratu dira, aurreko urtean baino gutxiago, baina familia barruko kasuen kopuruak gora egin du (+% 41,9). Foru-erakunde espezializatueta 67 erasotzaile artatu dira, eta horietatik % 90 bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurkako indarkerian inplikatur daude.

Hizlariak ondorioztatu du arreta-sistemak inoiz baino eskari handiagoa jasotzen jarraitzen duela, batez ere baliabide psikologikoetan eta harrera-baliabideetan. Datuei erreparatur, hurrengoa baieztatzen da:

- Ikusgarritasun eta detekzio handiagoa.
- Emakume gazteen aurkako indarkeriaren gorakada nabarmena.
- Haurrenganako etengabeko eragina.
- Egoitza-baliabideen eta laguntza ekonomikoaren gero eta behar handiagoa.

Eta, azkenik, sistemaren saturazioa saihesteko, erakundeen arteko koordinazioaren eta sare espezializatur finkatzearen garrantzia nabarmendu du.

Berriz ere bilkurari gogorarazi dio informazio guztia Behatokiaren webgunean dagoela eta urtean zehar jasotako datuak hobetzen eta horietan sakontzen saiatzen direla. Ondoren, Alixe Rodríguez andreari eman dio hitza, Behatokiko idazkariari, webguneari buruzko informazioa eman dezan.

Behatokiaren webgunearen aurkezpenari buruz

Alix Rodríguez andreak Behatokiaren webguneari buruzko informazioa eman du, urtean zehar jasotzen den informazio guztia ezagutarazteko gune gisa. Bilkuran pertsona berriak daudenez, webguneko atalak aurkeztu ditu eta informazioa nola bilatzen den azaldu du.

Azpimarratu du urteak daramatzatela lan egiten espazioa modernizatu eta eguneratzeko, indarkeria matxistaren arloko tokiko politikak aztertze eta hobetze lan-tresna izan dadin, arlo horretan esku hartzen duten sistema guztiak kontuan hartuta.

Arretaz gain, hainbat alderdi hartzen ditu kontuan, hala nola prebentzioa, erreparazioa eta sentsibilizazioa, eta erreferentziazko gunea izan nahi du hiru publikoentzat: herritarrentzat, biktimentzat berentzat, dauden prestazioak eskuratzeko aukerak ezagut ditzaten, eta teknikarientzat, politikarientzat eta akademikoentzat, datuen eta ematen den informazio zehatzaren analista gisa.

Jarraian, iruzkinak, zalantzak edo galderak egiteko aukera eman du. Eztabaidarako gunea sortu da, eta bertaratuek gai hauei buruzko gogoeta egin dute: gazteen arteko jarrera kritiko edo konprometituak, informazioaren gero eta ikusgarritasun handiagoa, indarkeria ikusezina (guztizkoaren % 8 inguru baino ez da



argitara ateratzen). Gainera, eskura dauden baliabideen egokitasunari eta irismenari buruz hausnartu da, gero eta handiagoak eta askotarikoak diren beharrei dagokienez.

Esker ona eta agurra.

Lortutako erabakiak

1. Aurreko bileraren akta onartzea.
2. Bilera honetan azaldutako dokumentuak baliozkotzea.

